

HERIOTZA ATERABIDE ASKATZAILE BAKARRA DENEAN

Arantxa Manterola

«...irtenbiderik ez zen, onena hiltzea zela ohartu nintzen». Anje Duhalderen abesti ezagunaren konklusio tragikora iritsita, egunero heriotzaren ate askatzailea jo eta jo ari dira makina bat pertsona. Nicolas Bonnemaison sendagilearen epaiketa zailtasun horien adierazle izan zen.

Kantuaren inguruabar lazgarritik egoe-
ra oso bestelakoan baldin bada ere,
gaixoek, senideek eta osasungintzako
profesionalek bizitzari amaiera duina
bermatzeko atakan katramilatuta se-
gitzen dute. Baita gizarteak berak ere,
lege moldaketek ez baitiote erabateko irtenbide gar-
birik ematen eutanasiaren gaiari. Urrian, Nicolas
Bonnemaison sendagilearen epaiketaren harira, gaia
pil-pilean izan zen berriro.

2010 eta 2011 bitartean Baionako ospitalean hilzo-
rian ziren zazpi pertsona pozoitzeaz akusaturik, be-
rriro epaitu zuten Hazparneko medikua. 2014ko ekai-
nean Paueko Auzitegiak errugabe jo ostean, fiskaltzak
ezarritako helegitea tarteko, epaiketa errepikatu egin

Ezkerrean, Bonnemaison 2011ko
irailaren 13an Paueko Auzitegitik
irteten. Erdian, Baionako erietxeko
lankideak sendagileari elkartasuna
adierazten 2015eko urrian.

Eskuinean, Bonnemaison bera
emaztearekin batera Angerseko
Auzitegira sartzen.

Pierre ANDRIEU | AFP / Nicolas MOLLO /
Jean-Sebastien EVRARD | AFP

zen, oraingoan Angerseko Auzitegian. Le-
hen prozesuan bezala, oihartzun handia
izan zuen bigarrenak ere, are eta gehiago
une bertsuan hamar urte lehenago onar-
tutako Bizitza Bukaerako Legearen –“Leo-
netti legea” deiturikoa– erreforma ezta-
baidatzen ari zirelako Senatuan.

Zaintza aringarrien zerbitzutik bertatik
abiatutako salaketaren ondorioz atxilotu
zuten unetik onartu zuen Bonnemaiso-
nek sedaziorako sustantzia bereziak era-
bili zituela sendaezinak ziren erien sufri-
karioari aurre egiteko. Baina une berean
argi utzi zituen bi gauza: batetik, ez zuela
haiek hiltzea helburu, eta, bestetik, bera
ez zela eutanasiaren aldeko militantea.
Jarrera hori defentsa ildotzat har ziteke-
en, baina, kontuak kontu, posizio horri
eutsi zion tinko epaileen aitzinean egin-
dako interbentzio guztietan.

DEFENTSA ESTRATEGIA

Alta, bere abokatuek gogotik erabili zu-
ten eutanasiaren gaia beren hitzartzee-
tan eta hedabideei egindako adierazpe-
netan. Aspalditik auzia Frantziako
gizartean erabakizun dela baliatuta, de-
fendatu zuten Bonnemaison, osasun zer-
bitzuetan diharduten beste hainbat pro-
fesional bezala, humanismoz blaitutako
pertsona ausarta dela. Aldi berean, aspal-
di erabakiak hartu behar zituzten haute-
tsi eta arduradun politikoei beren ardu-
rei ez erantzutea leporatu zieten.

Defentsa ildo eraginkorra zen jakitun,
lekuko anitz ekarri zituzten, batzuk sona
handikoak gainera. Tartean, heriotza
arautuaren auzia ondo ezagutzen duten



Bernard Kouchner eta Michele Delaunay medikuak, biak ere ministro izandakoak. Biek ala biek argi utzi zuten beraientzat Bonnemaision ez zela hiltzaile bat. Jean Leonettik, 2005etik indarrean zegoen bi-zitza amaierako legearen egileak, berriz, euskal sendagileak legearen kontra jardun zuela berretsi zuen, bertan jasotzen diren protokoloek muzin egin eta berari ez zegozkion erabakiak hartu zituelako, mediku-egituren aburua bilatu gabe.

Beren defentsa ildoan indartzeko, hildako pertsonen hainbat senideren testigantza ere entzun zen. Ataka «jasanezin» hartan emandako laguntza eskertu zioten Bonnemaisioni, bere ausardia eta gizatasuna goraipatuta. Zendutakoen familien artean, halere, bazen akusazio partikular gisa presente zegoen bat ere auzian. Beraiei deus esan gabe halako erabateko deliberoa –hil arte substantziak ematearena, alegia– ez zuten bidezko jotzen.

ZIGOR «JASANEZINA»

Hain zuzen ere, Angerseko bigarren epaiketa horretan, kasu horrengatik bakarrik zigortu zuten Bonnemaision, gainerako sei akusazioetatik absolbituz. Hala, urriaren 24an, Angerseko Auzitegiak François Iramuno «nahitara hil izanagatik», bi urteko espetxe zigorra ezarri zion, betiere espetxera joateko betebeharririk gabe (fiskalak bost urte eskatu zituen, lehen epaiketan bezala). Halako delitu baten-tzat bai fiskalaren eskaera bai zigorra bera ere horren arina izateak bistan utzi zuten gaiaren konplexutasuna eta iritzi

publikoan zigor gogorra ezartzeak eragingo lukeen egonezina.

Abokatuak asebeteta agertu ziren eta ez zuten helegiterik tartekatu, beren bezeroa «behin epaitegien gurutze-bidea amaituta» lasaitu zelakoan. Alabaina, egun batzuk geroago, usteak ustel zirela agerian geratu zen. Izan ere, urriaren 31n, Landetako baso bazter batean, korrika egiten ari ziren bi lagunek konortea galduta aurkitu zuten 55 urteko sendagile ohia bere autoaren barruan. Zigortu zutela onartzeko kapaz izan ez eta bere buzuaz beste egiten saiatu zen pilula oso toxikoak hartuz eta autoko ihes-tutuko gasak arnastuz.

Oso larri eraman zuten Bordele inguruko erietxe batera. Aste batzuk pasata, lehen aldiz adierazpenak egin zituen «Sud-Ouest» egunkarian. «Hiltzaile izate-agatik, arinki bada ere, kondenatua izatea jasanezina egin zitzaidan», aitortu zuen, epaileen deliberoak psikoki jota utzi zuela nabarmenduta. Horrek eta lau urtez «pairatutako infernuaren nekeak» bera ere heriotza askatzailearen bidea hartzera bultzatu zutela gaineratu zuen.

Bazen gainera, bere zama handitzen zuen beste alde bat, medikuntzan jarduteko debekua, alegia. Medikuen Kolegiotik kanporatua izana eramanezina egiten zitzaion. Halere, itxaropen apur bat badu orain, 2017an berriro onar dezaten eskatzeko aukera izango baitu. Benoit Ducos-Ader eta Arnaud Dupin bere abokatuak zigor hori berrikusteko eskaera eginga du-te jada, besteak beste, epaitegiaren ebazpenak Medikuen Kolegiotik kaleratzeko

erabili zituzten argudio batzuk ezeztatu dituela nabarmenduta.

LEGEAREN ZAIN ORAINDIK

Bonnemaision epaitzen zuten bitartean eutanasiaren aukera edo era duinean hiltzekoaren auzia gori-gorian jarri zuen beste faktore bat ere izan zen: «Leonetti legearen» erreforma. François Hollande presidenteak bere hauteskunde programan hartutako engaiamenduari jarraiki, eta ahalik eta adostasun gehien josteko xedez, bi alderdi ezberdinetako diputatuei eman zien gai labainkorren gainera legea prestatzeko ardura. Bata, bere alderdikoa (PS) –Alain Claeys – eta bestea Leonetti bera (LR).

Asanblea Nazionalaren eta Senatuaren arteko joan-etorriak ez dira xamurrak izan. Hasteko, erakunde bakoitzean gehiengo politikoak desberdinak dira (Asanblea Nazionalean ezkertiarak nagusi dira, eta, Senatuan, eskuinekoak), baina, egia esan, ideologi batekoen zein bestekoen barnean ere jarrera nahasiak dira. Urriaren 29an, hainbat zehaztasun eginda, Senatuak testu bat onartu zuen eta uneotan bi ganberen arteko batzorde bat testu bateratu bat lantzen ari da, urte amaierarako prest izan beharko litzatekeena. Legearen erredakzio berrian hainbat aurrerapauso eman diren arren (hil arterako sedazio sakona edota azken borondateak betebeharrekoak izateko aukera, esaterako) eutanasia argiki bideratzen ez delakoan, legeak berriro hutsuneak dituela salatu dutenak ere badira. Korapiloa ez da oraindik askatu.

